

# HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

## ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

<b>1. Erakundearen izena:</b>	ULMA CyE Koop. E.
<b>2. Sektorea:</b>	INDUSTRIA
<b>3. Langile kopurua:</b>	354 Euskal Herrian Mundu mailan 2025
<b>4. Webgunea:</b>	<a href="https://www.ulmaconstruction.eus/eu">https://www.ulmaconstruction.eus/eu</a>
<b>5. Erakundearen jardueraren deskribapena:</b> (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	Enkofratu, zimbria eta behin-behineko aldamiu sistemen ekoizle eta hornitzailea da. Hormigoizko egitura mota guztietarako enkofratu aukerak eskaintzen ditu lan eremu eroso eta seguruak sortzeko, obraren edozein esparrutan segurtasun eta errendimendurik handiena eskainiz.  Enkofratu eta aldamiu aukera zabala erabiltzeko salmenta zein alokairu zerbitzua eskaintzen du mundu mailan.  Euskal Herrian 3 egoitza nagusi ditu (Oñatin eta Goiainen) eta munduko 50 herrialdetan filial edota delegazioak ditu.

## Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

<b>Solaskidearen izen-abizenak:</b>	Xabi Calvo
<b>Helbide elektronikoa:</b>	<a href="mailto:xcalvo@ulmaconstruction.es">xcalvo@ulmaconstruction.es</a>
<b>Telefonoa:</b>	943 034900

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

<b>1. Praktika onaren titulua:</b>	EXCEL FORMULEN EUSKARAZKO BILATZAILEA
<b>2. Praktika onaren azalpena:</b>  Zer da? Zertan datza?  Nondik dator?  Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Azken urte hauetan office zerbitzuak euskaraz jartzeko hainbat kanpaina egin dira ULMA CyE kooperatiban. Hain justu, eta bereziki, EXCEL fitxategiak euskaraz erabiltzeko zailtasunak atzeman izan dira. Izan ere, formulak euskaraz bilatzeko denbora dezente behar izaten dute zenbaitzuk.</p> <p>Behar horri erantzuteko helburuarekin, EMUNek garatutako Excel formulen hiztegia bilatzaile eran jartzeko tresna bihurtzeko bideak arakatu genituen. Hori horrela, formulen bilaketak modu erosoan egin ahal izateko tresna garatu dugu.</p> <p>Excel formulen bilatzailea, Excel aplikaziorako egindako gehigarri bat da (VBA lengoian programatua). Honen bidez, euskaraz, gazteleraz edo ingelesez formulak bilatu eta hauen beste bi hizkuntzetarako itzulpenak eta deskribapenak ematen ditu. Adibidez, formula bat gazteleraz bilatzen bada, honen euskarazko eta ingelesezko itzulpenak ematen ditu.</p> <p>Era berean, bilatutako formula lanean ari garen Excel-eko gelaxka aktiboan sar dezakegu.</p> <p>Bestalde, lasterbide batzuk ere badaude. Hauen bidez, gelaxka bateko formula (lehen mailako formula besterik ez du itzultzen) zuzenean itzul daiteke Tekla konbinazio batzuen bidez.</p>

## PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

Leiho nagusia:

Excel Formulak - Euskara - Gaztelania -Ingelesa (v.1.0.2)

Bilaketa hizkuntza: **Gaztelera** Bilatu beharreko formula:

Euskara:  Ingelesa:

Kategoria:

Deskribapena euskaraz:

Deskribapena gaztelera:

Ireki hiztegia:

Bilaketa egiten:

Excel Formulak - Euskara - Gaztelania -Ingelesa (v.1.0.2)


Bilaketa hizkuntza: **Gaztelera** Bilatu beharreko formula: **BUSCA**

Euskara:  Ingelesa:

Ireki hiztegia:

- BUSCAR
- BUSCARV**
- BUSCARH

Bilaketaren emaitza:



Emaitzetik zuzenean formula gelaxkara sartzen:



	A	B	C	D	E	F	G	H
1	=BILATU.B(							
2		BILATU.B(bilatutako_balioa; taula_matrizea; zutabea_indize_zenb; [bilaketa])						
3								
4								

## Lasterbideak:

Lasterbideak ×

Hurrengo lasterbideak erabilgarri daude Excel liburuan zuzenean. Formula bakarrekoa izan behar da (ez dute kateatutako formulek balio). Formula osoa idatzia badago argumentuak errespetatzen ditu:

**CTRL + SHIFT + E** = Euskarara itzuli aukeratutako zeldako formula

**CTRL + SHIFT + G** = Gaztelerara itzuli aukeratutako zeldako formula

**CTRL + SHIFT + I** = Ingelesera itzuli aukeratutako zeldako formula

Euskarazko Excel batean gaztelerazko formula bat izanik:

	A	B	C	D	E
1	#IZENA?				
2					
3					

Gelaxka gainean CTRL+SHIFT+E sakatu euskarara itzultzeko:

	A	B	C	D	E	F
1	1					
2						
3						
4						